

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure proiektuak arrakasta izan dezan, beharrezkoak dira hainbat motatako baliabideak, bakoitza bere funtzio garrantzitsuarekin. Baliabide horiek ondo kudeatzea eta modu eraginkorrean erabiltzea ezinbestekoa da gure helburuak lortzeko.

Gure enpresarentzat, baliabide fisikoek garrantzi handia izango dute. Lehenik eta behin, biltegi bat izango dugu, gure makinak bertan sortzeko eta gordetzeko. Biltegia Urretxuko industria aldean egongo da kokatuta, eta nahiko handia izango da. Makinak bideratu eta haiek segurtasunez gorde ahal izatea ezinbestekoa izango da gure jardueran.

Bestetik, bulego txiki bat ere beharko dugu. Elkarrekin jarri dugun bezala Uggasa izango da hori eskeinitako diguna. Prezioa merkea izango da eta tokia oso egokia da, beharrezko baliabide guztiak bertan egongo baitira: komunikatzeko tresnak, arazoei aurre egiteko baliabideak, eta bezeroekin harremanetan jartzeko espazioa. Horrela, eguneroko lanak egiteko tokia izango dugu.



Giza baliabideak aipatuz, makinak diseinatzeko gaitasunak dituen norbait behar dugu, hau da, originaltasun handia, irudimena eta gauza berriak sortzeko ahalmen duena. Gure kasuan nahiak du abilezia hori. Gainera, , teknologia eta ordenagailuen mundua gustuko du eta ideiak garbi adierazteko eta ondo komunikatzeko abilezia du. Horrez gain, zailtasunak kudeatzeaz gain, taldea koordinatuta eta motibatuta mantentzeko gai izango da.

Urkok, teknologiaren mundua betidanik gustatu zaio eta gainera abila da horrelako tresnekin. Horrez gain, kontu handiz ibiltzen den mutikoa da eta makina bat barrutik sortzeko abilezia du.

Josuk langileen arduraduna izateko hainbat gaitasun ditu, adibidez, pertsona antolatua da eta pazientzia asko du. Horrez gain, beti izan du gustuko talde bat aurrera eramatea eta trebetasuna du jendearekin komunikatzeko.

Publizitatea zabaltzeko, saltzeko eta komunikatzeko trebetasuna duen pertsona bat beharrezkoa da. Gure kasuan lan honen arduraduna Ainara izango da. Jendearekin komunikatzeko erraztasuna eta saltzeko abilezia baitu.

Hasierako finantzaketa lortzeko, mailegu bat eskatu beharko dugu. Diru laguntza horrek gure proiektua aurrera eramateko beharrezko baliabideak eskuratzea ahalbidetuko du. Horrez gain, gure poltsikotik ere dirua jarriko dugu, inbertsioak egiteko eta lehenengo gastuak estaltzeko.